

# Kode Etikoa

12/2025

**Aurreko bertsioaren aldean aldaketak:**  
Kodearen lehen bertsioa

**Onarpen-data:**  
2025eko abenduaren 5a

**Kodea:** MCE  
**Berts:** 0



**cidetec** >  
MEMBER OF BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Definizioak</b>	<b>6</b>
<b>3. Aplikazio-eremua eta betetzeko beharra</b>	<b>7</b>
<b>4. Balio korporatiboak</b>	<b>8</b>
<b>5. Printzipio etikoak</b>	<b>10</b>
5.1. Erantzukizun-zentzua	10
5.2. Profesionaltasuna	10
5.3. Objektibotasuna	11
5.4. Integritatea	11
5.5. Inpartzialtasuna	11
<b>6. Jokabide-Arau Orokorrak</b>	<b>13</b>
6.1. Enpresa konpromezua	13
6.1.1. Neutraltasun politikoa	13
6.1.2. Irudia eta erreputazioa	13
6.1.3. Aukera-berdintasuna eta diskriminazio eza	14
6.1.4. Jabetza intelektual eta industrialarekiko errespetatua	14
6.1.5. Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa	15
6.1.6. Kapital-zuritzearen eta jarduera ilegalen prebentzioa	15
6.1.7. Pribatutasunaren babesa eta datu pertsonalen erabilera	15
6.1.8. Informazio konfidentzialaren babesa	16
6.1.9. Segurtasun informatikoa eta eduki ilegalen debekua	17
6.1.10. Informazio ekonomiko-finantzario egiazkoa eta osoa	17
6.1.11. Administrazio Publikoekiko lankidetzaren eta gardentasuna	17
6.1.12. Hornitzaileen eta kolaboratzaileen hautaketa	17
6.1.13. Ustelkeria pribatua eta publikoaren prebentzioa	18
6.1.14. Oparien eta dohaintzen politika	18
6.1.15. Interes gatazkak	19
6.1.16. Kontrabandoaren debekua	19
<b>6.2. Konpromezu soziala</b>	<b>20</b>
6.2.1. CIDETEC lotzen duten lege eta kontratuen betetzea	20
6.2.2. Giza eskubideak	21
6.2.3. Laneko segurtasuna eta osasuna	21
6.2.4. Jasangarritasuna eta ingurumena	21
<b>7. Kode Etikoa eta komunikazio sistema aplikatzea</b>	<b>23</b>
7.1. Indarrean sartzea	23
7.2. Kode Etikoaren interpretazioa	23
7.3. Compliance Batzordea	23
7.4. Ez-betetzea eta Barneko Informazio Sistemari jakinaraztea	24
7.5. Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua	24
7.6. Komunikazioen tramitazioa	26
7.7. Komunikazioak kanal ez-ofizialen bidez edo baimenik gabeko pertsona baten bidez jasotzea	27
7.8. Errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea	27



# 1. Sarrera

---

CIDETEC ikerketa aplikatuko erakunde pribatu bat da, 1997an sortua, balio erantsi handiko eta ekonomikoki jasangarriak diren soluzio teknologikoak garatu eta ezartzen dituena. Helburua da enpresei balioa ematea, ezagutza teknologikoa bereganatuz, sortuz eta transferituz, bezeroen lehiakortasuna hobetzeko eta inguruko enpresa sarea berritzen aktiboki parte hartzeko.

Kode Etiko honen helburua, batetik, CIDETECeko pertsonei beren lan jardueran helbideratzea da, eta, bestetik, CIDETECek bere interes taldeekin hartzen duen konpromiso etikoa erakustea.

CIDETECek ez du onartuko Kode Etiko honen aurkako jokabiderik, eta bertan ezarritako Balio Korporatibo eta Printzipio Etikoen benetako aplikazioa bermatuko du.

## 2. Definizioak

- **Balio Korporatiboak:** CIDETECen antolaketa-kultura definitzen, inspiratzen eta orientatzen duten funtsezko balioak dira.
- **Printzipio Etikoak:** CIDETECen jardura guztiak garatzeko esparru etiko eta profesionala ezartzen duten jokabidearen oinarritzko jarraibideak dira.
- **Jokabide Arau Orokorrak:** CIDETECeko pertsona guztien jokabideak eta jarduerak arautzen dituzten arau praktikoa aplikagarriak dira, balio korporatiboetan eta printzipio etikoetan oinarrituta.

## 3. Aplikazio-eremua eta betetzeko beharra

Kode Etiko honetan jasotako Balio Korporatiboak, Printzipio Etikoak eta Jokabide Arauak nahitaez bete beharrezkoak dira CIDETEC osatzen duten pertsona guztientzat.

CIDETEC osatzen duten pertsonen Kode Etiko hau ezagutzeko eta betetzeko betebeharra dute.

Kode Etiko hau hornitzaileei, bezeroei, administrazioei eta CIDETECeko gainerako interes talde garrantzitsuei jakinaraziko zaie, ahal den neurrian eta borondatezko nahiz kontzienteki hartutako konpromezubaten bidez, haien printzipioekin bat egin dezaten.

Kode Etikoa, ahal den neurrian, CIDETECek tokiko zein nazioarteko edozein eremu geografikotan garatzen dituen jardueri aplikatuko zaie, bereziki ikerketa, garapen eta berrikuntza jardueretan, eta bere jarduerekin lotutako industria sektoreei aholkularitza emateko eta ikerketa emaitzak transferitzeko jardueretan.

Kode Etikoaren komunikazioa CIDETEC osatzen duten pertsona guztiei egiten zaie Harrera Planaren bitartez. Plan horrek Kode Etiko hau irakurtzeko eta betetzeko betebeharra ezartzen du.

Kode Etiko honek ondorengo helburu hauek ditu:

- Balio Korporatiboak, Printzipio Etikoak eta CIDETECen Jokabide Arau Orokorrak formalki adieraztea, Pertsonen jardura profesionalaren esparruan eta CIDETECeko beste pertsona batzuekin, hornitzaileekin, bezeroekin, administrazio publikoekin eta, oro har, gizartearekin zein beste interes talde batzuekin dituzten harremanetan jarduteko gida izan daitezen.
- Pertsonen jardura profesionalean delituzko eta legez kontrako jokabide oro prebenitzea, jokabide etiko egokia bermatzeko eredu komun bat eskainiz.


c. Ikerketan, ezagutzaren kudeaketan, transferentzia teknologikoan eta kolaborazioan estandar etiko gorenak betetzen direla bermatzea, CIDETECen dagoen enpresa kultura sendotuz.

# 4. Balio Korporatiboak

CIDETECen ikuspegia da gure industria eraldatzeko eragile garrantzitsua izatera iristea, batez ere teknologian oinarritutako eredu ekonomiko bat sortzeko, hazkunderako eta ongizaterako palanka gisa. Helburu hori lortzeko, ondorengo balio hauetan oinarritzen da:

- 1. Ekiteko borondatea:**  
Estrategikoki erronka berriei ekiteko gai diren pertsonak.
- 2. Konpromisoa:**  
Egungo eta etorkizuneko bezeroekin konpromezua, beren eskakizunak eta itxaropenak betetzeko soluzio teknologiko onenak eraginkortasunez eskaintzeko.
- 3. Zerbitzu bokazioa:**  
CIDETEC ez da berez helburu bat, bere zentzua enpresei eta gizarteari benetako balioa ematen dioenean datza.

- 4. Lankidetzatza:**  
Lankidetzatza espiritua, bai taldeen artean, bai beste erakunde batzuekin, elkartrukearekin balioa duten eta misioari laguntzen dioten erakundeekin.
- 5. Aldaketara egokitzea:**  
etengabeko eraldaketa, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza bultzatuz, aldaketa bakoitza hazteko aukera bihurtzeko.
- 6. Zintzotasuna:**  
lortutako emaitzaren izaera baldintzatu dezaketen presiorik gabe jarduera garapena, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun irizpideekin eta analisi-jarduera behar bezala egiteko behar den informazio guztia behar bezala erabiltzen dela bermatuz.



# 5. Printzipio Etikoak

CIDETECen eta hura osatzen duten pertsona guztien jarduera gidatzen duten funtsezko printzipioak honako hauek dira:

## 5.1. Erantzukizun-zentzua

CIDETECeko pertsonak, beren gaitasun maila kontuan hartuta, arduraz, arretaz eta kontzientziaz jokatzeko erantzukizunak eta konpromisoak betetzeko, betiere, beren ekintzen eta erabakien ondorioak kontuan hartuta, horiek gertatu aurretik.

Horrek esan nahi du egindako erantzukizunaz jabetzea eta bere betebeharrak ezagutzea, bai eremu pertsonalean zein profesionalean.

## 5.2. Profesionaltasuna

CIDETECeko pertsonak seriotasunez eta eraginkortasunez egiten dute beren jardura profesionala, eta beren erantzukizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasunak dituzte. CIDETECek beharrezko baliabideak ematen ditu bermatzeko inork ez duela erantzukizunik izango beharrezko kualifikazio, espezializazio edo gaitasun generikorik izan gabe, premisa horretatik abiatuta etengabeko garapen profesionalean kohesionatutako giza talde bat sortuz, kualifikazio, espezializazio eta laneko inplikazio maila altuekin.

## 5.3. Objektibotasuna

CIDETECeko pertsonak egiazko datuak eta informazioa erabiliz garatzen dute beren jardura, interes, ideia edo sentimendu pertsonaletan, aurreiritzietan eta abarretan oinarritutako motibazioa saihestuz.

Beren jardun profesionalean, ikuspegi neutral eta inpartziala bilatu behar dute, egiazta daitezkeen gertaeretan oinarrituta, ikuspegi indibidual batek eragindako ikuspegiak saihestuz, CIDETEC behar ez diren eta nahi ez diren arriskuen eraginpean jartzera eramango duten alborapenak, interes gatazkak edo kanpoko eraginak sortuz.

## 5.4. Integritatea

CIDETECeko pertsonak, beren jardura profesionalean, leialtasunez, zintzotasunez eta fede onez jokatu behar dute, CIDETECeko lankideekiko eta beste profesional batzuekiko koherentzia eta errespetua mantenduz.

Hartutako konpromisoekiko, gardentasunarekiko eta zintzotasunarekiko errespetua eskatzen da, CIDETECen printzipio, balio eta interesekin lerrokatuta bat eginez, Kode Etiko honetan eta zentroaren barne araudian jasotzen den bezala.

## 5.5. Inpartzialtasuna

CIDETECeko pertsonak interes partikularren interferentziarik eta eraginik gabe hartzen dituzte erabakiak, eta jarrera objektiboa izaten dute, erabaki guztiak irizpide profesional kontrastagarri eta objektiboetan oinarritzen direla bermatzeko.



# 6. Jokabide-Arau Orokorrak

## 6.1. Enpresa konpromezua

### 6.1.1. Neutraltasun politikoa

CIDETECek eta bertako langileek inpartzialtasunez jokatzen dute alderdi, ideologia eta hautagaien aurrean, tratu-berdintasuna bermatuz, neutraltasuna ziurtatuz eta diskriminazio-egoerak saihestuz.

CIDETECek ez du alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa dakarren dohaintzarik edo ekarpenik egingo, ezta mailegu edo aurrerakin gisa ere.

### 6.1.2. Irudia eta erreputazioa

CIDETECek erreputazio handia du bere esperientzia luzeari esker, CIDETECen kultura osatzen duten Balio Korporatibo eta Printzipio Etikoekin eta know-howarekin konprometitutako giza talde bati esker.

CIDETECeko pertsonek CIDETECen irudia eta erreputazioa zaindu behar dute sare sozialetako edozeinetan egiten dituzten jarduera profesional guztietan. Era berean, besteak beste, hornitzaileek, alderdi interesdunek, negozioko bazkideek eta bezeroek korporazioan duten errespetua eta erreputazioa zainduko dute.

### 6.1.3. 6.1.3. Aukera-berdintasuna eta diskriminazio eza

CIDETECek bere giza egitura osatzen duten pertsonak hartzen ditu erakundearen arrakasta bermatzeko funtsezko elementutzat. Ildo horretan pertsonak errespetatzeko eta babesteko konpromisoa hartzen du, haien lan-harremanak tratu-berdintasunaren printzipioan oinarrituz, diskriminazio mota oro baztertzuz eta aukera-berdintasunean lan egiteko eskubidea aitortuz. Era berean, CIDETECen ez da onartzen jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo hitzezko jokabiderik, ezta bestelako tratu iraingarririk ere.

CIDETECek ez du onartzen sexuagatiko, arrazagatiko, sexu-orientazioagatiko, adinagatiko, desgaitasunagatiko, gaixotasunagatiko, nazionalitateagatiko, erlijioagatiko edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialagatiko diskriminazio-egoerarik.

Pertsona guztiek, maila profesional guztietan, elkarrekiko errespetuan, osotasunean, adetasunean, konfiantzan eta lankidetzan oinarritutako harremanak sustatuko dituzte, talde lana sustatuz eta lan giro positiboa lortzen lagunduko duen errespetuzko lan giroa bultzatuz.

CIDETECek jarraibide estrategikoak garatzen ditu, beharrezko ezagutza eta trebetasun maila duten pertsona egokiak daudela bermatzeko, edo, halakorik ezean, beharrezkoak diren ekintzei ekiteko, hala nola kide berriak sartzera edo prestakuntza ekintzak ezartzea.

### 6.1.4. Jabetza intelektual eta industrialarekiko errespetatua

CIDETECek aktibo ukiezinak eta proiektuen kudeaketa integraleko jardueraren ondoriozko ezagutza kudeatzen ditu. Eskubideak dituzten aktibo ukiezinak eta haien jabetza intelektualak kudeatzeko jarraibideak ezartzen ditu.

CIDETEC osatzen duten pertsonak CIDETECen jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa sekretuen eskubideak errespetatu behar dituzte, proiektu, prozesu, teknologia, know-how eta, oro har, erakundearen sortutako edo garatutako edozein edukiri dagokionez.

CIDETECen lan egiten duten bitartean pertsonak sortutako jabetza intelektualak, jabetza industrialak eta enpresa sekretuak ustiatzeko eskubideak azken horren titulartasunekoak izango dira.

Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak errespetatuko dira, bai eta CIDETECekoak ez diren hirugarrenek dituzten sekretu komertzialak ere. Ondorioz, pertsona guztiek ahalegindu behar dute jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta sekretu komertzialen eskubideei lotutako informazioa babesten, eta, kasu bakoitzean, eskubide horien titular legitimoen lizentziak edo baimenak lortu behar dituzte, baita hirugarrenen marken, logotipoen eta bestelako zeinu bereizgarrien erabilerari dagokionez ere.



### 6.1.5. 6.1.5. Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa

CIDETECek lehia askea errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta lehia defendatzeko araudiak beteko ditu, kolusioa, nagusitasunezko posizioaren abusua, lehiaren murrizketa edo prezioen aldaketa artifiziala den edo izan daitekeen edozein jokabide saihestuz.

Espresuki debekatuta daude jarduketa desleialak, CIDETECen jardueraren publizitate engainagarria edo iraingarria, bai eta lehiakideen edo beste hirugarren batzuen ospea edo jarduerak kaltetzen dituen edozein jokabide ere.

### 6.1.6. Kapital-zuritzearen eta jarduera ilegalen prebentzioa

CIDETECek une oro beteko ditu kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruz aplikatzekoak diren estatuko eta nazioarteko legeak.

Pertsona guztiek hartu behar dituzte beharrezko neurriak, eta CIDETECi jakinarazi behar diote iruzur edo delitu baten edozein zantzu edo susmo oro dagoenean, hala nola kapitalak zuritzea, terrorismoa finantzatzea, kontrabandoa edo beste edozein delitu jarduera.


Bezeroak identifikatzeko, informatzeko eta barne-kontrolerako ezarritako neurriak aplikatuko dira, eta agintaritzak eskudunei ahalik eta lankidetzan handiena emango zaie, beharrezkoa izanez gero.

Fundazio gisa, CIDETECek 10 urtez gordeko ditu funtsak edo baliabideak doan ematen edo jasotzen dituzten pertsona guztien identifikazio erregistroak, eta fundazioa ez dela erabiliko kapitalak zuritzeko edo talde edo erakunde terroristekin lotutako pertsona edo erakundeei baliabideak bideratzeko bermatuko du.

### 6.1.7. Pribatutasunaren babesa eta datu pertsonalen erabilera

CIDETECek pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatzen du, adierazpen guztietan, baita Internet eta beste komunikabide batzuen bidezko komunikazioen pribatutasuna ere. Bereziki, intimitaterako eta datu pertsonalen babeserako eskubideak errespetatzen dira.

Ondorioz, CIDETECek dituen eta tratatzen dituen datu pertsonalak behar bezala kudeatzeko konpromisoa hartzen du, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudia betez.



### 6.1.8. Informazio konfidentzialaren babesa

CIDETECek duen informazio ez-publikoa, edozein euskarritan dagoela ere, informazio konfidentzialtzat hartuko da oro har.

Baimendutako pertsonak bakarrik erabiliko dute Informazio Konfidentziala ahalik eta zuhurtasun handienarekin, eta babesteko beharrezko neurriak hartuko dituzte, eta informazio horren edukia ezin izango zaie hirugarrenei eman, kasu bakoitzean CIDETECen eskumena duen pertsonak edo organoak espresuki baimendu ezean, edo legezko errekerimendu edo errekerimendu judizial bat dagoenean izan ezik.

CIDETECeko pertsonen arduraren izango da proiektuak garatzen diren bitartean erakundeak informazioaren erabilerari eta konfidentziasunari buruz ezarritako barne arau guztiak ezagutzea eta betetzea.

Hirugarrenen informazioa legezko bitartekoen bidez bakarrik lortuko da. Pertsonen uko egingo diote bidegabe lortutako edozein informaziori edo informazio horren jabe legitimoek informazio hori mantentzeko dituzten konfidentziasun-betebeharrak urratzen dituenari.

Informazio Konfidentziala CIDETECetik kanpoko hirugarrenena denean, Pertsonak zorrotz bete beharko dituzte CIDETECek hirugarren horiekin sinatutako konfidentziasun akordioak.

CIDETECekiko lan harremana eteten bada, pertsonak konfidentziasun betebeharra mantenduko dute, eta biltegitratzeko dokumentu, baliabide edo gailu guztiak itzuli beharko dituzte, baita Informazio Konfidentzialarekin lotutako ekipo informatikoetan biltegitratutako edozein informazio ere.

### 6.1.9. Segurtasun informatikoa eta eduki ilegalen debekua

CIDETECek informazioaren kudeaketa segurua sustatzen du eta baimenik gabeko softwarea erabiltzea debekatzen du, baita CIDETECen ekipo informatikoetan software maltzurra deskargatzea, instalatzea eta erabiltzea ere, edo beste edozein programa informatiko edo aplikazio, baldin eta dagokion erabilera-lizentzia ofizialak babesten ez baditu edo CIDETECen edo hirugarrenen sistema informatikoen segurtasunerako elementu arriskutsuren bat sartzeko arriskua badakar.

CIDETECek espresuki debekatzen die pertsonari legez kanpoko edukiak deskargatzea, biltegitratzea, banatzea edo erabiltzea.

### 6.1.10. Informazio ekonomiko-finantzario egiazkoa eta osoa

CIDETECen informazio ekonomiko-finantzarioak fideltasunez islatu behar du bere ondare errealitatea, oro har onartutako kontabilitate printzipioekin eta finantza informazioari buruzko nazioarteko arau aplikagarriekin bat etorritik.

Inork ez du ezkutatu edo desitxuratu CIDETECen kontabilitate erregistro eta txostenetako informazioa, zeina osoa, egiazkoa, ulergarria eta zehatza izango baita.

CIDETECek konpromisoa hartzen du erakunde arduradunei eta administrazioei informazio fidagarria helarazteko, CIDETECen irudi fidela osatu ahal izateko.

Espresuki debekatzen da hartzekodunei kalte edo pribilegio bidegabea eragiten dien edozein ekintza edo ez-egite, bai eta betebeharrak sortzen dituen ondare-xedapeneko edozein egintza ere, enbargoa edo prozedura judizial, estrajudizial edo administratiboren eraginkortasuna luzatu, zaildu edo eragozten duena.

### 6.1.11. Administrazio Publikoekiko lankidetzaren eta gardentasuna

Agintaritzaren, erakunde arautzaile eta administrazio publikoekiko harremanak lankidetzaren, gardentasunaren eta araudia betetzearen printzipioen arabera arautuko dira.

CIDETECek administrazio publikoen aurrean dituen betebeharrak beteko ditu, bereziki Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari dagozkienak, bai eta dirulaguntzen eta kontratazio publikoaren arloan aplikatzekoak diren baldintzak betetzea ere.

Espresuki debekatuta daude zerga-betebeharrak saihesteko edo bidegabeko onurak lortzeko jokabideak, Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren eta erakunde baliokideen kaltetan.

### 6.1.12. Hornitzaileen eta kolaboratzaileen hautaketa

CIDETECek beti izango du zuhurtzia eta arreta kontratazio-erabaki eta -jardueretan, eta espresuki debekatuko du CIDETECentzat edo enpresa-harremanak dituzten hirugarrenen kaudimengabezia-arriskua eragin dezakeen edozein praktika.

Pertsona guztiek kalitate, aukera, kostu eta jasangarritasun irizpideak aplikatu behar dituzte hornitzaileak, talde interesdunak, negozio bazkideak eta bezeroak hautatzeko prozesuetan, betiere CIDETECen interesen alde eginez.

Hornitzaileen, Talde Interesdunen, Negozio Bazkideen eta Bezeroen artean Kode Etikoa honi buruzko ezagutza eta, ahal den neurrian, atxikipena sustatuko da, bertan jasotako Balio Korporatiboak eta Printzipio Etikoak hobeto aplikatzeko.

### 6.1.13. Ustelkeria pribatua eta publikoaren prebentzioa

CIDETEC ustelkeriaren aurka deklaratzan da, bere forma guztietan, eta CIDETECetik kanpoko pertsonen borondatean legez kontra eragitearen aurka, onura edo abantailaren bat lortzeko. Ustelkeria, eroskeria edo estortsio egintzak espresuki debekatuta daude, zuzenean edo zeharka legez kanpoko edozein abantaila eskaintzea edo agintzea barne, baita eraginen trafikoa ere.

Ondorioz, pertsonak, hornitzaileekin, alderdi interesdunekin, negozioko bazkideekin, bezeroekin eta administrazio publikoekin (nazionalak zein hirugarren herraldeetakoak) dituzten harremanetan, partikular, agintari edo funtzionario publiko bat inpartzialtasun betebeharrak edo edozein lege agindu haustera ez bultzatzeko moduan jokatu beharko dute. Atal honetan ezarritako debekuak beiriziki partikularra, agintari edo funtzionario publikoa CIDETECeko pertsonarekiko familia- edo adiskidetasun-loturek estuki lotzen dutenean aplikatuko dira.

### 6.1.14. Oparien eta dohaintzen politika


Ezin izango da oparirik, mesederik edo konpentsaziorik eman edo onartu, ez eskudirutan, ez gauzatan, CIDETECen harreman komertzial edo instituzionaletan legez kontra eragiteko helburua duen edo izan dezakeen edozein moatatakoak, zuzenean edo zeharka. Opariak edo dohainak CIDETEC markaren irudia sustatzeko dira.

Opariak eta dohainak ematea eta onartzea baimenduta egongo da soilik balio ekonomiko mugatukoak edo soilik sinbolikoak direnean eta kortesia komertzialaren edo sektorean ohikoak diren arreten zantzuekin bat datozenean, eta inola ere ezin dutenean enpresaren erabakietan baldintzatu edo eragin. Oro har, sari eta aintzatespen, omenaldi edo kanpaina instituzional orokorren ondorioz baino ez dira baimenduko opariak eta dohainak ematea eta onartzea.

Eskainitako edo jasotako opariak aurreko ataletan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituztenean, berehala baztertu edo itzuli beharko dira eta hierarkian gorago dagoenari jakinarazi beharko zaio.

Egoera eta kultura jakin batzuetan, fede onez eskainitako opari bati uko egiteak sentsibilitate kulturalik eza erakus dezake edo harreman komertzial bati kalte egin. Salbuespenezko kasuetan, oparia CIDETECen izenean onartu ahal izango da eta hartzaileak berehala jakinarazi beharko die bai bere nagusi hierarkiko zuzenari, bai Compliance Batzordeari. Opari hori Erosketa eta Zerbitzu Orokoretako Zuzendaritzari emango zaio lehenbailehen, hark behar bezala kudeatu dezan.

Kasu jakin bat onargarria den ala ez zalantzak daudenean, barne kontsulta egin beharko da edo, hala badagokio, uko egin beharko zaio.



### 6.1.15. Interes gatatzak

CIDETECeko pertsonen interes gatatzako edozein egoera saihestu behar dute.

Interes gatatzak dagoela ulertuko da CIDETECen beren funtzioak betetzean negozioren, finantzarioen, familiakoen, politikoen edo norberaren kanpoko interesek Pertsonen iritzia oztopa dezaketenean.

Honako hauek hartuko dira pertsonari lotutako pertsonatza: pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona; pertsonaren edo haren ezkontidearen aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak (edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona); bai eta sozietate edo enpresak ere, baldin eta harekin lotutako pertsona edo pertsonak kontrol-egoeran badaude, administrazio- edo zuzendaritza-kargu bat betetzen badute, edo, zuzenean edo zeharka, eragin nabarmena badute erabaki finantzario eta operatiboetan.

Interes gatatzak batean dagoen pertsonak, ahal bezain laster hierarkian gorago dagoen pertsonari jakinarazi beharko dio. Interes gatatzak baten inguruan zalantzarik izanez gero, Compliance Batzordeak interpretatuko du. Eraginpeko pertsonak ez du esku hartuko interes gatatzarekin lotutako erabakiak hartzean, ez eta erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartzean eta gatatzak horri eragiten dion informazioa eskuratzean ere.

### 6.1.16. Kontrabandoaren debekua

Inportazio eta esportazio jardueretan, legeria aplikagarriak, CIDETECen barne araudiak eta gainerako operadoreek ezarritako kanpo araudiak ezarritako betebeharrak beteko dira.

Ondorioz, espresuki debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduerak.

## 6.2. Konpromezu soziala



### 6.2.1. CIDETEC lotzen duten lege eta kontratuen betetzea

Pertsona guztiek indarrean dagoen legedia zorrotz errespetatuz garatuko dituzte beren jarduera profesionalak, baita CIDETEC lotzen duten barne arauak eta kontratuak ere, jarduten duen egoitza guztietan.

Pertsonak zorrotz bete behar dute Kode Etiko hau.

Pertsonak oso-osorik errespetatu beharko dituzte CIDETECek hirugarrenekin dituen kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak, balioak, printzipioak eta konpromisoak, bai eta jarduera profesionala egiten duten herrialdeetan aplikatu beharreko erabilerak eta jardunbide egokiak ere.

Legedia, Kode Etikoa edo CIDETEC lotzen duten kontratuak ez ezagutzeak eta CIDETECen barruan praktika orokorra dela argudiatzeak ez dute ez betetzea justifikatuko.

Inork ez du legearen, Kode Etikoaren edo CIDETEC lotzen duten kontratuen aurkako jarraibiderik edo agindurik, nahiz eta jarraibide edo agindu horiek goragoko maila duen pertsona batenak badira ere.

Ekipoak kudeatzen edo zuzentzen dituzten pertsonak honako hauek egin beharko dituzte:

- Legeria, Kode Etikoa eta beren jarduera arloei eragiten dieten kontratuak ezagutzea.
- CIDETECen jokabide etikoaren erreferente gisa jardutea.
- Haien mende dauden pertsonak beren eginkizunak betetzean informazio eta prestakuntza egokia jasotzen dutela zaintzea, legeria, Kode Etikoa eta CIDETEC lotzen duten kontratuak ezagutu eta bete ahal izateko, eta eragina izan dezaten.

CIDETECek Kode honetan ezarritako Printzipio Etikoak, Balio Korporatiboak eta Jokabide-Arauak eraginkortasunez aplikatzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren politikak, prozedurak eta dokumentuak garatuko ditu.

### 6.2.2. Giza eskubideak

CIDETECek eta hari lotutako hirugarren alderdiek Giza Eskubideen Adierazpenaren oinarritzko printzipioak aitortu behar dituzte, Nazio Batuen 1948ko definizioaren arabera. Era berean, CIDETECek atzerriko herritarrak babesteko konpromisoa hartzen du, aplikatu beharreko atzerriartasun araudia betez.

CIDETECek langileei lotutako giza eskubideak betetzen direla kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko egiten du lan, sor daitezkeen gatazkak edo problematikak saihesteko, murrizteko eta bideratzeko.

### 6.2.3. Laneko segurtasuna eta osasuna

CIDETECek bere profesionalak lana leku seguru, garbi eta osasungarrietan egin dezatelaz arduratzen da, baita lan baldintzak etengabe hobetzeaz eta lan arriskuen arloko ekintza egokiak inplementatzeaz ere, prebentzioan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako ikuspegi batetik.

CIDETECen jarduera espezifikoko kontuan hartuta, pertsona guztiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ezarritako segurtasun- eta osasun-arauak betetzea.
- Norbera Babesteko Ekipamenduak behar bezala erabiltzea.
- Arreta berezia jartzea lehergaiak, substantzia sukoiak, korrosiboak, toxikoak edo itogarriak diren gailu edo artefaktuen manipulazioan, edukitzean edo garraioan baita edo pertsonen osasuna edo ingurumena arriskuan jar dezaketene beste edozein materialen kasuan ere.
- Detektatutako edozein arrisku egoeraren berri berehala ematea.
- Erakundearen prebentzio kulturaren modu aktiboan parte hartzea.

Pertsonak beharrezko baliabideak ematen zaizkie beren jarduera profesionala segurtasun, ergonomia eta higiena neurri egokiak egin dezaten, pertsonen bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arriskuan jar ez daitezela.

Pertsonak une oro errespetatuko dituzte laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatu beharreko prebentzio neurriak, CIDETECek ezarritako baliabideak erabiliz eta beren taldeetako kideek beren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuz.

### 6.2.4. Jasangarritasuna eta ingurumena

CIDETECek garapen jasangarriko eredu bat planteatzen du, bere jardueraren garapena eta ingurumenaren babesa bateragarri eginez, ezarritako legeria betez eta prebentzioan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako ikuspegi batekin, behar diren baliabideak Pertsonen eskura jarritz.

Pertsonak modu aktibo eta arduratsuan konprometitzen dira ingurumena zaintzearekin, eta jakitun dira CIDETECek eragin dezakeen eta ingurumenaren gaineko inpaktua sor dezakeen jarduera, produktu eta zerbitzu guztiez jabetuta.

Horretarako, CIDETECeko pertsonak legezko eskakizunak beteko dituzte, eta beren jardueraren ingurumen inpaktua murrizteko CIDETECen jarraibideak, zehaztapenak eta prozedurak bete beharko dituzte. CIDETECeko pertsonak barneko eta kanpoko araudiak ezarritako jarraibideei jarraituko diete, arreta berezia jarritz ingurune natural sentikorrean, eta zorrotz jarraituz dituzte hondakin eta material potentzialki arriskutsuen kudeaketari dagokionez ezarritako protokoloak betez.

Pertsonak ahaleginduko dira CIDETECek beren eskura jarritako instalazio, aktibo eta baliabideen erabileratik eratorritako ingurumen inpaktua murrizten.



# 7. Kode Etikoa eta komunikazio sistema aplikatzea

## 7.1. Indarrean sartzea

Kode Etiko hau CIDETECeko Patronatuak onartzen du, eta indarrean egongo da, salbu eta hau indargabetezko, berrikusteko, eguneratzeko edo ordeztuko duen beste bat indarrean jartzeko espresuki akordiorik badago.

## 7.2. Kode Etikoaren interpretazioa

Kode Etiko honen eta Compliance osatzen duen edozein kontrolen artean desadostasuna badago, Kode Etikoa nagusituko da. Era berean, kontrolen interpretazioa Kode Etiko honen espirituaren eta helburuaren arabera egingo da.

Compliance Batzordeari dagokio Kode Etikoaren edukia interpretatzea. Interpretazio-irizpideak nahitaezkoak dira hartzaile guztientzat.

Kode Etikoaren interpretazioari buruz sortzen den edozein zalantza Compliance Batzordeak ebatziko du, Barne Informazio Sistemari jakinarazita.

## 7.3. Compliance Batzordea

CIDETECen osatzen duten pertsonen aldetik Compliance Batzordea da Kode Etiko honen betetzea dutela zaintzeko ardura duen organoa.

Compliance Batzordeak araudia betetzeko funtzioari dagozkion gai guztietan eskumena du. Bere osaera, eginkizunak, funtzioak eta Compliance Batzordeari lotutako gainerako alderdiak Batzordearen Erregelamenduan arautzen dira.

Compliance Batzordeak CIDETECen Compliancea osatzen duten kontrol guztiak egin eta proposatzen ditu, eta kontrol hotiek nahitaez bete beharrekoak dira pertsonentzat.

## 7.4. Ez-betetzea eta Barneko Informazio Sistemari jakinaraztea

Kode Etiko hau ez betetzeak lan edo sozietate zehapenak ekar ditzake, ez-betetze horretatik sor daitezkeen administrazio edo zigor penalei kalterik egin gabe.

Kode Etiko honen ez-betetzeen berri duen edonork, arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak, bai eta EBko arau-hausteak ere, zuzenean jakinarazi behar du Barneko Informazio Sistemaren bidez. Ezagutzen diren ez-betetzeak ez jakinaraztea Kode Etiko honen arau-haustetzat hartuko da.

Komunikazioak kudeatzeko eta izapidetzeko arduradun operatibo izendatutako pertsona fisikoak kudeatu eta izapidetuko ditu komunikazioak (Barneko Informazio Sistemaren arduraduna - RSII), eta, aldi berean, CIDETECeko Compliance Batzordeko kide eta koordinatzaile da. Compliance Batzordea Barneko Informazio Sistemaren (ORSII) Organo Arduraduna da, eta Barneko Informazio Sistemaren ikerketa espedienteak kudeatzeko eta izapidetzeko funtzioak RSIIren esku uzten ditu.

Barneko Informazio Sistemarako komunikazioa ondorengoaren bidez egiten ahalko da: <https://cidetec.es/eu/sii/>

Informatzaileak, nahi izanez gero, hitzordua eskatu ahal izango du RSIIrekin bilera presentzial bat egiteko. Bilera horretan, gertakariak pertsonalki azaldu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, dokumentuak edo bestelako froga-elementuak aurkeztu.

Informatzaileari informazioa emango zaio Barneko Informazio Sistemari egindako komunikazioan egindako aurrerapenei buruz, Gestión de comunicaciones del SII dokumentuanaurreikusitako baldintzetan.

## 7.5. Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

CIDETECek informatzailearen nortasunaren konfidentzialtasuna bermatzen du, baita Barneko Informazio Sistemari aurkeztutako komunikazioen existentziari eta edukiari dagokienez ere. Era berean, sistemak komunikazio anonimoak egiteko aukera bermatzen du.

Barneko Informazio Sistemarekin lotutako komunikazio eta prozedura guztiak Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen baldintzak eta datu pertsonalak babesteko araudia errespetatuz kudeatzen dira.

Debekatuta dago CIDETECeko pertsona baten aurka errepresalia edo edozein ondorio negatibo dakarren edozein neurri hartzea, fede oneko komunikazio bat egin izanagatik. Komunikazio hori egin duenaren aurkako errepresaliak Kode Etiko honen arau-hauste larritzat hartuko dira.

Aurreko atalean aurreikusitako errepresalien debekuak ez du eragotziko, hala badagokio, bidezkoak diren diziplina-neurriak hartzea, baldin eta barne-ikerketak adierazten badu komunikazioa argi eta garbi faltsua dela eta fede txarrez eginikoa dela.





## 7.6. Komunikazioen tramitazioa

Barneko Informazio Sistemak CIDETECen komunikazioak kudeatzeko eta izapidetzeko ezarritako prozedurei jarraituko die, honako hauek bermatuz:

- Komunikazioen konfidentziasuna
- Komunikazio anonimoak egiteko aukera
- Informatzailearen aurkako errepresaliak debekatzea
- Jasotako komunikazioen izapidetze egokia egitea
- Barne-ikerketa, beharrezkoa denean
- Compliance Batzordeak azken txostenak egitea

Barneko Informazio Sistemaren bidez jasotako komunikazio guztien erregistro bat mantenduko da.

Komunikazio bat jaso ondoren, Barneko Informazio Sistemaren prozedura dagokion moduan hasiko da, CIDETECen Gestión de comunicaciones del SII dokumentuan aurreikusitako baldintzen arabera, hala nola: konfidentziasunaren bermea, informatzailearen eta eragindako pertsonaren eskubideak, informatzaileari jasotze agiria bidaltzea, komunikazioa onartzea edo ez onartzea, eta, onartuz gero, Compliance Batzordeak azken txostena egitea. Era berean, eragindako pertsonen errugabetasun-presuntzioa eta ohore-eskubidea errespetatu behar dira.

Barne ikerketan, CIDETECen beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia konfidentziasunez edozein arlo edo negoziotatik eskatu ahalko da.

Komunikazioak RSIIri edo Compliance Batzordeko edozein kideri eragiten badio, eragindako pertsonak ezin izango du tramitazioan parte hartu eta kasu horretarako Gestión de comunicaciones del SII dokumentuan ezarritakoa aplikatuko da.

Prozedura hori Compliance Batzordearen Azken Txosten batekin amaituko da, eta dagokion CIDETECeko organori helaraziko zaio. Azken txostenak, hala badagokio, dagozkion diziplina neurriak proposatuko ditu aplikatu beharreko lan legeria aplikatzeko, bereziki Langileen Estatutua, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak, Barne Araudia eta CIDETEC osatzen duten pertsonen aplikatu beharreko beste edozein arau soziolaboral, hori guztia gerta daitezkeen zehapen administratibo edo penalei kalterik egin gabe.

## 7.7. Komunikazioak kanal ez-ofizialen bidez edo baimenik gabeko pertsona baten bidez jasotzea

CIDETECek ezarritakoak ez diren salaketa kanalen bidez edo tratamenduaren ardura ez duten langileen bidez bidaltzen den komunikazio baten hartzaileak konfidentziasuna bermatu behar du, eta berehala bidali RSIIra.

Hartzaileak nortasuna zaindu behar du, eta eragindako pertsonen eta komunikazioan aipatzen den edozein hirugarrenen datuen konfidentziasuna bermatu behar du, batez ere informatzailearena.

Konfidentziasun betebeharra haustea arau-hauste administratibo oso larritzat jotzen da, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera, eta, era berean, delitu penala izan daiteke.

## 7.8. Errugabetasun-presuntzioa eta ohorerako eskubidea

Kaltetutako pertsonen errugabetasun-presuntzioa eta ohore-eskubidea errespetatu behar dira.

Kode Etiko hau da CIDETECeko pertsona guztiek beren jardura profesionalen garapenean duten jokabide gidatzen duen erreferentzia etikoaren eta araudia betetzearen esparrua da. Betetzea funtsezkoa da erakundearen ezaugarri diren osotasuna, bikaintasuna eta konfiantza mantentzeko, eta, horrela, helburu instituzionalak lortzen eta erreferentziazko zentro gisa duen ospea indartzen laguntzeko.

# cidetec >

MEMBER OF BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE



## Egoitza Korporatiboa

### Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea

Paseo de Miramón, 196  
20014 Donostia / San Sebastián  
GIPUZKOA - SPAIN

cidetec@cidetec.es  
+34 943 30 90 22

[cidetec.es](http://cidetec.es)



## Energy Storage

### Eskuzaitzeta Industrialdea

Oianguren, 5  
20160 Zubieta  
Donostia / San Sebastián  
GIPUZKOA - SPAIN

energystorage@cidetec.es  
+34 943 30 90 22

[energystorage.cidetec.es](http://energystorage.cidetec.es)



## Surface Engineering

### Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea

Paseo de Miramón, 191  
20014 Donostia / San Sebastián  
GIPUZKOA - SPAIN

surfaceengineering@cidetec.es  
+34 943 31 82 12

[surfaceengineering.cidetec.es](http://surfaceengineering.cidetec.es)